



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.09.17

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa**

**Bertaratu ez den zinegotzia:
Iñigo Alonso Sarasibar**

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

**Jarduneko kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko irailaren hamazazpian, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari diru-laguntza izenduna emateko sinatutako hitzarmeneko aldaketak, "Gu ere Bertsotan" proiektua aurrera eramateko.
3. Onartzea diru-laguntza izenduna, Amarotz auzo elkarteari, 2018ko egitasmoak burutzeko.
4. Tolosako Samaniego herri ikastetxean aurreikusitako erreforma-lanen kontratua esleitzea.
5. Onartzea 2018ko asfaltatze-lanen kontratazio espediente eta lizitazio jardunbideari hasiera ematea.
6. 47/2018 eta 48/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko irailaren 10ean egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.



TOLOSAKO
UDALA

2. ONARTZEA GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO SINATUTAKO HITZARMENEN ALDAKETAK, "GU ERE BERTSOTAN" PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO.

Tolosako Udalarentzat hizkuntzaren erabileraren ikuspegitik garrantzia handiko sektorea da hezkuntza, Tolosan duen presentzia eta pisuarengatik. Izan ere, hizkuntzari dagokionez, agertoki nagusietako bat da.

Bestetik, beharrezkotzat jotzen du Tolosako Ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzan, euskarari dagokionez ikasleen hizkuntza gaitasunean eta ahozkotasunean eragitea.

Gauzak horrela izanda, Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordearentzat Gipuzkoako Bertsozale Elkartea gakoetako bat da euskararen normalizazio prozesuari bultzada handi bat emateko.

2017-2018 ikasturteko hitzarmena ekainaren 19an sinatu zuten bi aldeek, bai Tolosako Udalak eta baita Bertsozale Elkartek ere.

Gerora, akats batzuk daudela eta, hainbat aldaketa proposatu dira .diru laguntza emateko prozedurak aurrera jarrai dezan eta egoki diren ondorioak izan ditzan.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Gipuzkoa Bertsozale elkartearen artean, 2018ko ekainaren 19an, sinatu zen hitzarmenean egindako aldaketak, honako hauek, hain zuzen ere:

1.- Honela jartzen duen lekuan:

- XIII.- Bi aldeek, Tolosako Udalak eta Bertsozale Elkartek, berretsi nahi dutela azken urteotan garatzen ari diren lankidetzak, aipatutako helburuekin egiten ari den elkarlanari jarraipena eman ez ezik, zeregin horretan sakondu eta eraginkortasuna areagotzeko, aintzat harturik lehen aipatutako 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, Udalari ematen dizkion eskumenak eta Bertsozale Elkartearen 2018-2019 urte-arteko "Gu ere Bertsotan" proiektua.

Honela jarri beharko luke:

- XIII.- Bi aldeek, Tolosako Udalak eta Bertsozale Elkartek, berretsi nahi dutela azken urteotan garatzen ari diren lankidetzak, aipatutako helburuekin egiten ari den elkarlanari jarraipena eman ez ezik, zeregin horretan sakondu eta eraginkortasuna areagotzeko, aintzat harturik lehen aipatutako 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, Udalari ematen dizkion eskumenak eta Bertsozale Elkartearen 2017-2018 urte-arteko "Gu ere Bertsotan" proiektua.

2.- Honela jartzen duen lekuan:



TOLOSAKO
UDALA

- **Laugarrena: Indarraldia.**

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.

Honela jarri beharko luke:

- Hitzarmen honek 2017ko irailaren 1etik 2018ko ekainaren 30era arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.

3.- Honela jartzen duen lekuan:

- **Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.**

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Honela jarri beharko luke:

- **Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.**

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako ikasturtearen barruan sortzen diren gastuak.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hezkuntza eta Euskara Departamentuari eta Kontuhartzailtzari.

3. ONARTZEA DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA, AMAROTZ AUZO ELKARTEARI 2018KO EGITASMOAK BURUTZEKO.

Aurrekariak

Amarotz Auzo Elkarteak eta Tolosako Udalak lau urterako lankidetzeta hitzarmena sinatu zuten, 2016ko otsailaren 1ean.

Amarotz Auzo Elkarteak 2018rako dituen asmoen berri aurkeztu dio Tolosako Udalari, 2018ko martxoaren 19an.

Informazio osagarriak eskatu zaizkion neurrian, eskaera berriak aurkeztu ditu maiatzaren 3an, ekainaren 22an eta uztailaren 10ean.

Horretaz gain, elkarte honek frogatu du Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin dituen betebeharrak betetzen dituela.

Uztailaren 10eko eskaeran zehazten da zeintzuk diren elkartearen jarduera nagusiak eta hauetarako dituen gastu eta diru-sarreraren aurreikuspena.

2018ko jardueren aurreikuspenak atal nagusi hauek ditu:

1) Auzoko festak



TOLOSAKO
UDALA

- 2) Mendi Taldea
- 3) "Auzoetxe" aldizkaria
- 4) Antzerki taldea
- 5) Dotazioen prozesuko lan taldea
- 6) KZ gunea
- 7) Txoko Txiki umeen jolastokia
- 8) Beti Gazte, jubilatuta eta pentsionisten taldea
- 9) Hirigintza taldea
- 10) Bestelako taldeak: dantza taldea, areto-dantzak, kantu taldeak.....
- 11) Barrikoteak

Jarduera horiek aurrera ateratzeko, 41.408 euroko gastuak eta 41.260 euroko sarrerak aurreikusten dituzte, Udalak emango liekeen diru-laguntzaz gainera.

Tolosako Udalak 2018. urterako onartu zituen aurrekontu orokorretan, besteak beste, 27.445 euroko kreditua onartu zuen Amartz Auzo Elkartearen jarduerak laguntzeko. Diru-laguntza hau 0800 481 01 33800 partidan azaltzen da.

Egitasmoaren azterketa

- 1) Egitasmoak erakusten du Amartz auzoak eta auzo-elkarteak, konkretuki, Tolosaren bizitza soziokulturalan duten garrantzia eta balioa.
- 2) Egitasmoak Amartz bezalako auzoetan guztiz beharrezkoa den egituraketa sozialaren aldeko lan guztiz positiboa egiten du.
- 3) Elkarteak mantendu eta kudeatzen duen espazioak Tolosako Udalaren helburu den zerbitzu-deszentralizazioari neurri handi batean laguntzen diola esan daiteke, zentrotik aldentuta dagoen herriko gune batean herritarrentzako zerbitzuak eskaintzen dituelako.
- 4) Auzoaren identitate eta kohesioari laguntzen dio bertako bizilagunak festen eta bestelako ekimenen inguruan elkartzen dituelako eta, neurri batean, auzoaren ordezkari mota desberdin bat eskaintzen duelako, bizimodu parte-hartzaileak bultzatu nahi diren garaian, eta erakundeek herritarren bozaren beharra geroz eta handiagoa dutenean.
- 5) Hitzarmenaren bigarren puntuak finkatzen du 2016rako 26.757 euroko laguntza. Hurrengo urteetan KPIa erantsiko zaiola dio. Kontuan izanik 2017ko laguntza 26.960 eurokoa izan zela, indize hau aplikatuz, 2018rako dagokiona 27.222,86 euroko laguntza da.

Amarutz Auzo Elkarteak aurkeztu duen egitaraua aztertu eta frogatuta geratu da ekimenak berak duen balio soziokulturalaren balorazioa eta Tolosarentzat suposatzen duen onura.



TOLOSAKO
UDALA

Aipatutakoa kontuan izanik eta udal teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Onartzea Amarotz Auzo Elkarteari diru-laguntza ematea, honoko datu hauek kontuan hartuta:

KOPURUA: 27.222,86

PARTIDA: 0800 481 01 33800

Hitzarmeneko bosgarren puntuaren arabera, laguntzaren % 50 aurrerakin modura emango zaie, eta beste erdia jarduera amaitu eta zuriketa aurkeztu eta aztertu ondoren.

Beraz, lehenengo ordainketa 13.772,5 €-koa izango da.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Amarotz Auzo Elkarteari, Hezkuntza eta Euskara Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

4. TOLOSAKO SAMANIEGO HERRI IKASTETXEAN AURREIKUSITAKO ERREFORMA-LANEN KONTRATUA ESLEITZEA.

I.- Tolosako Udaleko alkate-udalburuak, 2018ko uztailaren 23an emandako Alkatezaren probidentzia bidez, kontratazio jardunbideari hasiera eman zion Tolosako Samaniego Herri Ikastetxean aurreikusitako erreforma-lanak prozedura ireki sinplifikatu bidez esleitzeko.

II. 2018ko uztailaren 27an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen aipatutako kontratazio espedientearen Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria, Preskripzio Teknikoen Orria eta kontratazio jardunbidea – prozedura ireki sinplifikatu bidezkoa -.

III. 2018ko uztailaren 27an, Euskadiko

I.-La alcaldesa-presidenta del Ayuntamiento de Tolosa, el día 23 de julio de 2018, mediante Providencia de Alcaldía, incoó el expediente de contratación para la realización de las obras de reparación y reforma previstas en Samaniego Herri Ikastetxea de Tolosa, mediante procedimiento abierto simplificado.

II. La Junta de Gobierno Local celebrada el día 27 de julio de 2018 aprobó el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, el Pliego de Prescripciones Técnicas y el procedimiento de contratación abierto simplificado.

III. El 27 de julio de 2018 fue publicado el



TOLOSAKO
UDALA

Kontratugilearen Profilean argitaratu zen lizitazio-iragarkia, interesdunei 20 egun naturaleko epea emanez euren proposamenak aurkezteko.

IV.- Proposamenak aurkezteko epean, kontratazio jardunbidean bi enpresek aurkeztu zituzten proposamenak: CUBIERTAS PAGOLA, SL (B-20730941) eta CUBIERTAS GUTIÉRREZ, SL (B-20494563) enpresek hain zuzen ere.

V.- Kontratazio Mahaiak lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, ikusi zen bi enpresek aurkeztu zituzten ezinbesteko baldintzak egiaztatzeko dokumentazio administratiboa, Baldintza Administratibo Partikularren Pleguan ezarritakoaren arabera; beraz, bi enpresak lizitaziora onartuta, beren eskaintzak baloratzeari ekin zitzaion.

Halaber, Kontuhartzaitza teknikariak egindako balioespen txostenean egindako proposamena aintzat hartuta, Kontratazio Mahaiak 2018ko abuztuaren 24an egindako bilkuran, bestek beste, ondokoa ebatzi zuen: "Lortutako emaitzak ikusita, eskaintzarik onena izan da CUBIERTAS PAGOLA, SL enpresak (IFZ: B-20730941) pleguan eskatzen diren baldintzak beteta aurkeztu duena. Beraz, Kontratazio-Mahaiak honako erabaki hau hartzea proposatzen zion Kontratazio-Organuari:

Tolosako Samaniego Herri Ikastetxean aurreikusitako konpontze- eta eraberritze-obrak exekutatzeko, prozedura ireki sinplifikatuaz esleitu beharreko kontratua lizitazio-eskaintza onenari adjudikatzea,

anuncio de licitación en el Perfil del Contratante del País Vasco, concediendo un plazo de 20 días naturales a los/las interesados/as para la presentación de proposiciones.

IV. En el plazo de presentación de proposiciones, dos empresas presentaron sus propuestas: CUBIERTAS PAGOLA, SL (B-20730941) y CUBIERTAS GUTIÉRREZ, SL (B-20494563).

V. Examinadas por la Mesa de Contratación la documentación de las ofertas presentadas por las empresas licitadoras, se observó que las dos empresas habían presentado la documentación administrativa acreditativa de los requisitos previos, conforme a lo establecido en los PCAP, por lo que ambas empresas fueron admitidas a la licitación y se pasó a la valoración de sus ofertas.

Asimismo, con base en el informe de valoración emitido por la técnica de Intervención, la Mesa de Contratación reunida el día 24 de agosto de 2018 resolvió lo siguiente: "A la vista de los resultados obtenidos, la mejor oferta ha sido la presentada por la empresa CUBIERTAS PAGOLA, S.L. con CIF B-20730941, que cumple con los requerimientos del pliego. Por consiguiente, la Mesa de Contratación propuso al Órgano de Contratación la adopción del siguiente acuerdo:

La adjudicación, a la mejor oferta de la licitación, del contrato de obras de reparación y reforma previstas en Samaniego Herri Ikastetxea de Tolosa a adjudicar por procedimiento abierto



TOLOSAKO
UDALA

hau da, CUBIERTAS PAGOLA SL enpresari (IFZ: B-20730941), zeren enpresa horrek aurretik jarritako onarpen-baldintzak bete eta konpromisoa hartzen baitu kontratuaren xede diren obrak zenbateko honetan exekutatzeko: laurogeita bi mila, bederatziehun eta berrogei euro eta lau zentimoan (82.940,04 €) —nagusia—, gehi % 21 —BEZa—, zeina baita, hamazazpi mila, laurehun eta hamazazpi euro eta berrogeita bat zentimo (17.417,41 €); beraz, guztira, ehun mila eta hirurehun eta berrogeita hamazazpi euro eta berrogeita bost zentimo (100.357,45 €).

Horretan oinarrituta, 2018ko abuztuaren 28ko Alkate Probidentziaren bidez Cubiertas Pagola, S.L., enpresari errekeritu zitzaion aurkez zezala Baldintza Administratibo Partikularren pleguak eskatzen dokumentazioa.

2018ko irailaren 11an, CUBIERTAS PAGOLA, SL, enpresak aurkeztu du eskatutako dokumentazioa

Hori guztia kontuan izanik, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren 151.4 artikulua xedatutakoa eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio-egintza baliokotzat jotzea eta CUBIERTAS PAGOLA, S.L., enpresari adjudikatzea Tolosako Samaniego Herri Ikastetxean aurreikusitako erreforma-lanak gauzatzeko kontratua, hurrengo era

simplificado a la mercantil CUBIERTAS PAGOLA, S.L. con CIF B-20730941, que cumple con los requisitos previos de admisión y que se compromete a ejecutar las obras objeto del contrato por importe de ochenta y dos mil novecientos cuarenta euros con cuatro céntimos (82.940,04 €) de principal, más el 21 % de IVA, que supone diecisiete mil cuatrocientos diecisiete euros con cuarenta y un céntimos (17.417,41), lo que hace un total de cien mil trescientos cincuenta y siete euros con cuarenta y cinco céntimos (100.357,45€)

En base a ello, mediante Providencia de Alcaldía, de fecha 28 de agosto de 2018, se requiere a la empresa Cubiertas Pagola, S.L., la presentación de la documentación exigida en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Con fecha 11 de septiembre de 2018, la empresa CUBIERTAS PAGOLA, SL, presenta la documentación requerida.

Por todo ello, de conformidad a lo dispuesto en Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y a propuesta del Técnico Municipal, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa CUBIERTAS PAGOLA, S.L., el contrato para la ejecución obras de reparación y reforma previstas en Samaniego Herri Ikastetxea de Tolosa, en lo siguientes términos:



honetan:

PREZIOA

- Prezioa, guztira: 100.357,45 €
- Printzipala: 82.940,04 €
- BEZa (% 21) 17.417,41 €

PRECIO

- Precio total: 100.357,45 €
- Principal: 82.940,04 €
- IIVA (21 %) 17.417,41 €

Gauzatzeko epea: hiru astekoa izango da, zuinetaren egiaztapen-akta sinatzen denetik kontatuta.

Plazo de ejecución: será de tres semanas desde la firma del acta de comprobación del replanteo.

Bermea: 6 hilabete, obraren harrera-datatik kontatuta.

Plazo de garantía: 6 meses desde la recepción de las obras.

Aipatu adjudikazioaren oinarri izan dira udal teknikariak txostenean jarritako arrazoiak, honako hauexek, laburbilduta:

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en el informe emitido por el técnico municipal y que se resumen de la siguiente manera:

Esleipen-irizpideen balorazio-koadroa / Cuadro de valoración de los criterios de adjudicación

	Prezioa / Precio	Epea / Plazo	Guztira / Total
Cubiertas Pagola, S.L.	90 puntu	5 puntu	95 puntu
Cubiertas Gutiérrez, S.L.	79 puntu	0 puntu	79 puntu

BIGARRENA.- Aurkeztu diren lizitatzailerik guztiei esleipen hau jakinaraztea.

SEGUNDO.- Notificar la adjudicación a todas las empresas licitadoras.

HIRUGARRENA.- Adieraztea kontratua formalizatu behar dela hamabost egun balioduneko gehieneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen denetik kontatuta.

TERCERO.- Establecer que el contrato se formalizará no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquel en que se reciba la notificación de la adjudicación.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri

CUARTO.- Dar cuenta de acuerdo al



ematea Hirigintza, Obrak, Zerbiatze eta Departamento de Urbanismo, Obras,
Ingurumen departamentuari eta Servicios y Medio Ambiente e
Kontuhartzaitzari. Intervención.

5. ONARTZEA 2018KO ASFALTATZE-LANEN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	2018ko asfaltatze-lanen obra kontratua.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2018OASI0002

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espediten aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehen.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, aho batez onartu zuen 2018ko asfaltatze-lanak jasotzen dituen proiektua, Estebe Uribe Egizabal udal arkitektoak egindakoa. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jaso zen espediten, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

- Tolosako hainbat kaletako asfaltoan mantentze-lanak egitea (zuloak estaltzea).
- Beste hainbat kale osorik asfaltatzea.

SPKLren 232.1.c) eta 5. artikuluan, hau xedatzen da: *“Clasificación de las obras. 1. A los efectos de elaboración de los proyectos se clasificarán las obras, según su objeto y naturaleza, en los grupos siguientes:*

- a) Obras de primer establecimiento, reforma, restauración, rehabilitación o gran reparación.*
- b) Obras de reparación simple.*
- c) Obras de conservación y mantenimiento.*
- d) Obras de demolición.*

...

5. Si el menoscabo se produce en el tiempo por el natural uso del bien, las obras necesarias para su enmienda tendrán el carácter de conservación. Las obras de mantenimiento tendrán el mismo carácter que las de conservación.”.



Beraz aurrekoa aintzat harturik, proiektaturiko lanak **kontserbazio- eta mantentze-lanak** direla ondorioztatu da, ondorengo hauek kontuan hartuta:

- Egingo diren lanek ez dute gainditzen erabileratik sorturiko mantenimendu soila.
- Lan horiek ezin dira kalifikatu konponketa gisa, SPK Legeak bere 232.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: *“Se consideran como obras de reparación las necesarias para enmendar un menoscabo producido en un bien inmueble por causas fortuitas o accidentales.”*.
- Erreformako lanak ondorengo era honetan definitu dira SPK Legearen 232.3 artikuluan: *“El concepto general de reforma abarca el conjunto de obras de ampliación, mejora, modernización, adaptación, adecuación o refuerzo de un bien inmueble ya existente.”*.

Beraz, onarturiko proiektua aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedaturikoa kontuan hartuz, obra-kontratuko asfaltatze-lanak kontserbazio eta mantentze lanak dira.

Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen du aipaturiko kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

3.- Kontratazio-espedientea, kontratuaren izaera eta kaudimena

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espedienteari hasiera emateko Alkatzaren Probidentzia.
- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Proiektua: Memoria, Preskripzio Teknikoen Orria eta Aurrekontua.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria

Halaber, espedientea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluko a) atalean xedaturikoarekin bat, obra-kontratua hain zuzen ere, aipatu Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra-kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzea izango dela ikusirik, burutu nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkaturikoen artean agertzen



TOLOSAKO
UDALA

dira: “*construcción general de edificios y obras singulares de ingeniería civil (puentes, túneles, etc.)*.”.

Bestalde, obra kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehena. SPKLren 99.3 artikulua hau xedatzen du loteetako banaketari buruz: “*Siempre que la naturaleza o el objeto del contrato lo permitan, deberá preverse la realización independiente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, pudiéndose reservar lotes de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional cuarta.*

No obstante lo anterior, el órgano de contratación podrá no dividir en lotes el objeto del contrato cuando existan motivos válidos, que deberán justificarse debidamente en el expediente, salvo en los casos de contratos de concesión de obras.”.

Beraz, aurrekoa kontuan harturik, kontratua bi lote desberdinetan banatu da; Lote 1: mantentze-lanak eta Lote 2: Inbertsio-lanak, nahiz eta argi geratu den kontratuaren xedea kontserbazio- eta mantentze-lanak direla. Hala ere, lizitatzailleek euren proposamenak bi loteetara aurkeztu ditzakete, inongo murriztapenik gabe.

Bigarrena.- Kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **62.529,15** eurokoa da Lote 1en kasuan eta **185.396,31** eurokoa Lote 2en kasuan.

Hori horrela, nahiz eta obra-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikulua arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 20.1 artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (5.548.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 3.000.000 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Hirugarrena.- Bestalde, Baldintza Administratiboen Pleguaren I. titulua IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk bere 86., 87., eta 88. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan, kontuan hartu behar da kontratuaren balio zenbatetsiak ez duela gainditzen 500.000 euroko kopurua. Beraz:

- Enpresa berriek parte har dezakete lizitazioan (88.2 artikulua).
- Lizitatzailleen gaitasunari dagokionez, lizitatzailleen sailkapena ez da nahitaezkoa izango (77.1.a) artikulua). Hala ere, sailkapenak gaitasuna eta kaudimena



TOLOSAKO
UDALA

egiaztatuko ditu botere esleipendunaren aurrean (artikulu bera, bigarren paragrafoa)

Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *“La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.”.*

4.- Espediente mota

SPK Legeak bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditentak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditentak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta”.* Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritik.

5.- Kontratuaren ezaugarriak

Obra kontratua gauzatzeko gehienez **HIRU ASTE** ezarri dira bi loteentzako, zuinketaren egiaztapen akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



TOLOSAKO
UDALA

Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da:

- **LOTE 1: 75.660,28 euro, horietatik 62.529,15 €, printzipala, eta 13.131,12 euro, BEZari dagozkionak.**

- **LOTE 2: 224.329,54 euro, horietatik 185.396,31 € printzipala, eta 38.933,23 euro, BEZari dagozkionak.**

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak udal aurrekontu-partida hauen kargura finantzatu direla: LOTE 1: 0700.210.01.153.20 eta LOTE 2: 0700.601.06.153.20.

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko, aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

6.- Esleipena egiteko jardunbidea eta modua

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide ireki sinplifikatua** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpiderik ez dago, eta balorazio osoa formulatan oinarritu da Beraz, SPKLren 159.1.b) artikuluan (balio-judizioetan oinarritutako irizpideak % 25 ez gainditzea) bete da.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPK Legearen 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabeteetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 €-ko kopurua gainditzen. Kasu honetan, aipatu Legearen 243.3 atalean xedaturiko kasu bereziaren aurrean gaudela iradoki du Idazkari honek.

7.- Administrazio baldintza zehatzen agiria eta preskripzio teknikoaren orria



TOLOSAKO
UDALA

Kontratazio-espeditentarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPK Legearen 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

8.- Kontratazio-organoa

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoa jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, printzipioz, eskumena **alkate-udalburuarena** da. Hala ere, Tolosako Udalaren kasuan, udal honetako alkate-udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontuan hartuz, eskumena Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrari dagozkiola ondorioztatu du idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebatzea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPK Legearen 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea onartzea 2018ko asfaltatze-lanen obra-proiektuan, Estebe Uribe Egizabal udal arkitektoak egindakoa, eta Anjel Uranga Txurruka Hirigintzako buruak egindako txostenean aurreikusitako obrak kontratatzeke.

BIGARRENA.- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua onartzea, ondokoaren arabera:

- LOTE 1: 75.660,28 euro, horietatik 62.529,15 €, printzipala eta, 13.131,12 euro, BEZari dagozkionak.
- LOTE 2: 224.329,54 euro, horietatik 185.396,31 €, printzipala eta 38.933,22 euro, BEZari dagozkionak.



TOLOSAKO
UDALA

HIRUGARRENA.- Ezartzea kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea **hiru astekoa** izango dela, obraren zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasita.

LAUGARRENA.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide ireki sinplifikatua) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean, lizitatuzaileek beren proposamenak **hogei egun naturaleko epean** aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzaitzari jakinaraztea.

6. 47/2018 ETA 48/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **47/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **3.186,34 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **47 /2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **48/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **328.137,94 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU



TOLOSAKO
UDALA

LEHENA. -48/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA